

<p><b>2023KO ABENDUAREN 21EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.</b></p> <p>=====</p> <p><u>BERTARATUAK</u></p> <p><u>ALKATEA</u></p>	<p><b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 21 DE DICIEMBRE DE 2023.</b></p> <p>=====</p> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>ALCALDESA</u></p>
--	---

Amaia Aguirre Muñoa and.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE</u>
---------------------	-------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)  
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)  
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)  
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
--------------------	-------------------

Mikel Erkoreka Gonzalez (EAJ/PNV)  
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)  
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)  
Zalao Campillo Mandaluniz (EAJ/PNV)  
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).  
Eduardo Andrade Aurrecochea (PP)  
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).  
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)  
Alicia González del Valle Francos (PP)  
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)  
Aiala Eguiluz Rodríguez (PP)  
Mikel Bildosola Agirregomezkorta (EH BILDU)  
Oihane Zelaia Calderón (EH BILDU)  
Olaia Bilbao Onandia (EH BILDU)  
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)  
Eleder Barañano Mentxaka (EH BILDU)  
Ane Larrakoetxea Vivar (EH BILDU)

Juanma Gonzalez Mosquera (PSE-EE)  
Mihaela Mariana Jilavu Diaconescu (PSE-EE)  
Xabier Benito Ziluaga (ELKARREKIN PODEMOS)

**IDAZKARI NAGUSIA**

**SECRETARIO GENERAL**

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzia eta erdietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**EBAZPEN ATALA**

**PARTE RESOLUTIVA**

**176.- GETXOKO UDALBALTZAK 2023KO AZAROAREN 30EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

2023ko azaroaren 30ean egindako aurreko ohiko bilkuraren akta gehiengoz onartzen da.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ane Larrakoetxea

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 18 (EAJ/PNV, PP, PSE-EE)

EZ/NO: 6 (EH Bildu, E.Podemos)

**176.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 30 DE NOVIEMBRE DE 2023.**

Por mayoría se aprueba el acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 30 de noviembre de 2023.

<b>ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK</b>	<b>ORGANIZACIÓN Y CUENTAS</b>
---------------------------------	-------------------------------

**177.- ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBO ETA PSIKOSOZIALEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK, AGINTZARI SOC. COOP-ARI FAKTURAK ORDAINTZEA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

1.- Ekonomia prozesalagatik, prozedurarekin jarraitzea eta, espedientean prestazioen balorazioari buruz jasotako informazioaren arabera, zerbitzu-emailearen aldeko kalte-ordaina finkatzea, Udala bidegabe aberastea saihestuz, aurkeztutako eta adostutako fakturekin bat datorren zenbatekoan, honako xehetasun hauen arabera:

FAKTURA ZBK Nº FACTURA	DATA FECHA	CONCEPTOS FACTURADOS	ZENBATEKOA IMPORTE
B23 2023/B23/170	30/11/2023	Servicio SISEP	30.741,67
GUZTIRA/TOTAL .....			30.741,67

2.- Faktura hau onartzea, eta, horretarako, AGINTZARI SOCIEDAD COOPERATIVAren aldeko 30.741,67 euroko obligazioa xedatzea eta aitortzea, 020000/23100/227330 (Erref.: Indarrean dagoen Udal Aurrekontuaren 2023/000035).

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 12 (EAJ/PNV, PSE-EE)  
EZ/NO: 5 (EH Bildu)  
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 7 (PP, E.Podemos)

<b><u>UDAL ORGANOEEN KONTROLA</u></b>	<b><u>CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN</u></b>
---------------------------------------	--

<b>ALKATETZA</b>	<b>ALCALDÍA</b>

**178.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ BOZERAMAILEEN BATZORDEAK 2023KO AZAROAREN 29AN HARTU DUEN ERABAKIAREN BERRI EMATEA.**

Alkatezatzak proposatuta, jakin zuten Bozeramaileen Batzordeak adierazpen instituzional hau egin zuela 2023ko azaroaren 29an, EAJren, PPren eta PSE-EEren babesarekin eta EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen abstentzioarekin:

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA  
DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**

**2023KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

**Euskal hiztunon ahotsa, euskararen zabalbide**

**Euskal hiztuna, euskararen zabalkunde digitalaren eragile nagusia**

Gure alde, euskararen alde alegia, inork egin dezakeenaz galdetu ohi dugu sarri euskal hiztunok, bereziki Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruko gogoetan. Ezin uka, jakina, egin beharreko galdera eta gogoeta dela, baina ez litzateke inola ere zilegi, are gutxiago baliagarria, ikuspegi horretara mugatzea euskararen aldeko jarduerara.

Garrantzi betekoak izaten jarraitzen dute, ezinbestekoak, euskararen erabileraren aldeko ekimen kolektibo presentzialek, jendetsuek, kale girokoek; ezinbestekoak diren bezala euskara

**178.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO ADOPTADO POR LA JUNTA DE PORTAVOCES DE FECHA 29 DE NOVIEMBRE DE 2023, SOBRE EL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA.**

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional de la Junta de Portavoces de 29 de noviembre de 2023, adoptada con el apoyo de PNV, PP y PSE-EE, y abstención de EH Bildu y Elkarrekin Podemos:

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA 2023**

**La voz de las personas vascoparlantes, vehículo para la difusión del euskera**

**La persona vascoparlante, principal agente para la difusión digital del euskera**

¿Qué podemos hacer a favor del euskera? Esta es una de las preguntas más recurrentes que las personas euskaldunes nos solemos hacer, especialmente en torno a la reflexión del Día Internacional del Euskera. Obviamente, se trata de una reflexión necesaria, pero no sería lícito, y menos útil, limitar la actuación a favor del euskera a esta perspectiva.

Las iniciativas colectivas presenciales y multitudinarias que tienen presencia en nuestras calles siguen siendo de vital importancia, al igual que todas aquellas iniciativas eficaces que provienen de la

ardatz duen elebitasun orekatua gauzatzen jarraitzeko lankidetzeta pribatu-publiko harmonikotik datozen ekimen eraginkorrek oro.

Baina digitalizazio aurreratuaren garai honetan, adimen artifiziala makulu ezezik kultur, komunikazio eta gizarte garapenaren bektore nagusi bilakatzen ari zaigunean, erronka berri bat iritsi da gure komunitatera.

Algoritmoak ausazkotasunarekin lotzen ditugu sarritan eta adimen artifiziala gure kontrol eremutik at dagoen esparru batekin. Baina teknologia aurreratu guzti honen muinean, gizakiak etengabe elikatutako tripak daude. Makinen autonomia gero eta handiagoa izanik ere, autonomia hori era batera edo bestera elikatu eta bideratu daiteke. Bada, elikatze horretan dugu euskaldunok etorkizun hurbilerako erronka, bai erakundeen aldetik baita norbanakoen aldetik ere.

Sortuko diren tresna, aplikazio, gailu berriek gure hiztun komunitatearen eta gure euskararen muina behar dute errailetan. Horretarako, ahotsa, hizkera, hizkuntza ezagutza, aldaera, estiloa, berezitasuna, esakera edo idazkera etorkizuneko tresnen elikagai bilakatu behar ditugu.

Euskararen zabalkunderako aro digital berria hasi da, inplikazio pertsonalaren bidez eta komunitate gisa jarduteko unea iritsi da. Har dezagun geure esku bereziki adimen artifizialaren bidetik datozkigun lanabesak euskaraz

armónica colaboración público-privada para seguir haciendo realidad un bilingüismo equilibrado con el euskera como eje.

Pero en esta era de la digitalización avanzada, en la que la inteligencia artificial se está convirtiendo en un gran vector del desarrollo cultural, comunicativo y social, ha llegado un nuevo reto a nuestra comunidad.

Los algoritmos los asociamos a menudo a la aleatoriedad y la inteligencia artificial a un ámbito ajeno a nuestro espacio de control. Pero el núcleo de toda esta tecnología avanzada está compuesto por unas entrañas alimentadas constantemente por el ser humano. A pesar de la creciente autonomía de las máquinas, estas pueden ser alimentadas y encauzadas de una manera u otra. Y es este el nuevo reto que ha llegado a nuestra comunidad euskaldun, alimentar las entrañas de la tecnología en un futuro próximo, tanto desde las instituciones como desde el ámbito personal.

Las nuevas herramientas, aplicaciones, dispositivos que están en constante creación, requieren de la esencia de nuestra comunidad de hablantes y de nuestra lengua en sus entrañas. Para ello es necesario que la voz, el lenguaje, el conocimiento del lenguaje, la variedad, los estilos, las singularidades, la expresión o la escritura se conviertan en alimento de futuras herramientas.

Se ha iniciado una nueva era digital para la difusión del euskera, ha llegado el momento de actuar a través de la implicación personal y comunitaria. Asumamos la responsabilidad de adecuar las herramientas que provienen

funtzionatzeko bidean tinko jartzeko ardurara, erakutsi diezaiogun euskaraz lan egiten geure eguneroko jardueran ezinbesteko lankide dugun tresneria digitalari.

Oparo bueltatuko digu-eta gure oraingo ahaleginaren mozkina, modu ezin praktikoagoan bueltatu ere: euskarazko datu-base sendo bat sortuta, euskaraz zuzeneko sarbidea izango du sare teknologiko nagusien zirkuituetan, eta, horren eskutik, eguneroko eta helburu ugaritako aplikazioetan.

Ez da amets bat, hil edo biziko eginkizuna baizik euskararen garabideari begira eta, batez ere, digitalizazioaren unibertso ekidinezinean gure hizkuntzak atzerapausorik gabe aurrera egin ahal izan dezan.

Beste hainbat urrats egin ditu euskaraz digitalizazioaren eremuan oraingo honen aurretik ere, esate baterako, itzultzaile neuronalaren, itzulpen automatikoaren, ahots sintesiaren eta transkripzioaren alorrean eman diren urratsak.

Hortxe beraz, bidea erabil ditzagun gure alde, euskararen zabalkundearen alde, teknologia kolaboratiboak, izugarria izango dugu ahaleginaren ordaina, guztiz aldekoa eta, batez ere, atzeraezina.

Euskal hiztunon komunitateak zor dio bere buruari ahalduntzerako bide honetan urrats erabakigarriak egitea, digitalizazioak sortutako beharrak asetzea, kasu.

Eta ireki diezaiogun ahalegin honen atea, baita ere, euskarara hurbiltzen ari diren herritar guztiei, euskal herritarron

de la vía de la inteligencia artificial para que funcionen en euskera, enseñémosle al imprescindible mundo digital de nuestra actividad diaria a trabajar en euskera.

Con la creación de una base de datos sólida, el euskera tendrá acceso directo a los circuitos de las principales redes tecnológicas y, de esta manera, a aplicaciones cotidianas de múltiples ámbitos. En poco tiempo nuestro día a día verá recompensado el esfuerzo que ahora se nos exige.

No es un sueño, es una tarea vital para el desarrollo del euskera y, sobre todo, para que en el inevitable universo de la digitalización nuestra lengua pueda avanzar sin retrocesos.

Ya se han realizado varios avances previos en el ámbito de la digitalización, como pueden ser el traductor neuronal, la traducción automática, la síntesis de voz y la transcripción. Por tanto, sabemos que camino emprender, valgámonos de las tecnologías colaborativas, el esfuerzo tendrá una relevancia totalmente favorable y, sobre todo, irreversible en la difusión del euskera.

La comunidad euskaldun se ve obligada a realizar avances decisivos en su proceso de empoderamiento, como es el caso de las necesidades generadas por la digitalización.

Compartamos este reto también con todas las personas que se están acercando al euskera, para que toda la



komunitate eleaniztunak elkartasunez, harrotasunez eta kontzientzia betean bizi dezan euskararen aurrerabide digitala.

Eman diezaiogun ahotsa euskarari, mundua euskaraz izendatzen jarraitu ahal dezagun.

Euskarari zor diogu. Geure buruari zor diogu.

comunidad vasca, plurilingüe en su esencia, viva el progreso digital del euskera en solidaridad, con orgullo y con plena conciencia.

Demos voz al euskera, para que podamos seguir nombrando al mundo en euskera.

Se lo debemos al euskera. Nos lo debemos.

### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Xabier Benito  
Mikel Bildosola  
Ignacio Uriarte

<u>ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK</u>	<u>ORGANIZACIÓN Y CUENTAS</u>
---------------------------------	-------------------------------

#### 179.- KREDITU TRANSFERENTZIEN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUA ALDATZEKO HAINBAT EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Kreditu-transferentziak erabiliz aurrekontua aldatzeko zinegotzi delegatuaren ebazpen hauen berri izan zuten:

5763/2023 zenbakidun Ebazpena 47.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2023/14 kreditu-transferentzia. 2023ko ekitaldiko Su-itzaltze eta Salbamendu foru Zerbitzua.

#### 180.- KREDITU FINALISTA GAITZEEN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUA ALDATZEKO HAINBAT EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio

#### 179.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSAS RESOLUCIONES DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS DE CRÉDITO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Quedaron enterados de las siguientes Resoluciones de Concejal Delegado de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias de crédito:

Resolución nº 5763/2023 por un importe de 47.000,00 euros. Transferencia de crédito 2023/14. Servicio Foral de Extinción de Incendios y Salvamento ejercicio 2023.

#### 180.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSAS RESOLUCIONES DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE HABILITACIONES DE CRÉDITO FINALISTAS.

A propuesta de la Comisión Informativa de

Batzordeak proposatuta,

Kreditu finalista gaikuntzaren erabileraren bidezko aurrekontu-aldaketari buruzko Zinegotzi Eskuordearen Ebazpen hauen berri izan zuten:

5599/2023 zenbakidun Ebazpena 2.334.628,00 euroko zenbatekoarekin. 2023/07F kreditu finalista gaitzea. Urbanizazio-prozesutik eratorritako beste jarduketa batzuk.

Oihane Zelaia sartu da saioan

Organización y Cuentas,

Quedaron enterados de las siguientes resoluciones de Concejal Delegado de modificaciones presupuestarias mediante el uso de habilitación de crédito finalistas:

Resolución nº 5599/2023 por un importe de 2.334.628,00 euros. Habilitación de crédito finalista 2023/07F. Otras actuaciones derivadas del proceso urbanizador.

Oihane Zelaia se incorpora a la sesión.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**181.- EH BILDU UDAL-TALDEAREN MOZIOA, ETXE HUTSAK MOBILIZATZEARI BURUZKOA.**

**181.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU A FAVOR DE MOVILIZAR LAS VIVIENDAS DESHABITADAS.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Getxon etxebizitzaren arazoa bistakoa da eta inork ez du zalantzan jartzen. Azken aldi honetan merkatua erabat gelditu da, ez da etxebizitzarik ateratzen merkatura, gobernua dio etxebizitza plana landuko dela HAPO onartzen denean, baina HAPO ez da onartu eta atzeratuta dago. Bestalde, logikoena litzateke, gure ustez, etxebizitza planak HAPO baldintzatzea eta ez aldrebes.

El problema de las viviendas de Getxo es evidente y nadie lo pone en duda. Últimamente el mercado se ha detenido por completo y no sacan viviendas al mercado. Según el Gobierno, el plan de vivienda se tratará cuando se apruebe el PGOU; no obstante, no se ha aprobado el PGOU y está atrasado. Por otra parte, consideramos que lo más lógico sería que el plan de vivienda condicione el PGOU y no al revés.

Argi dagoena da arazoa gaur gaurkoa dela, eta HAPOak edo ustezko Etxebizitza Planak ekar ditzakeen konponbideak ez direla berehalakoak izango, urteak pasa beharko dira balizko konponbide horien eraginkortasuna ikusteko. Baina, bitartean, gurean badago gazte, eta ez hain gazte etxebizitza topatzen ez duena.

Está claro que se trata de un problema actual y que las soluciones que planteen el PGOU o el posible plan de vivienda no van a ser inmediatas; tendrán que pasar años para poder comprobar la efectividad de dichas soluciones. Sin embargo, mientras tanto son muchos los jóvenes y no tan jóvenes de nuestro municipio que no consiguen encontrar vivienda.



Duela urte batzuk eginiko azterketa batek esaten zuen Getxon 900 etxe huts merkatugarriak baino gehiago zeudela. Etxe huts horiek mobilizatzeko plangintza oso bat proposatzera gatoz, hainbat neurri uztartzen dituen.

Gure ustez alokatzaileari segurtasuna eman behar zaio, hori baita euren kezka nagusia, segurtasun ekonomiko, juridiko eta teknikoa horregatik arlo guzti horiek landuko dituen zerbitzu berria sortzea proposatzen dugu.

Baina etxe hutsen jabeek, balizko alokatzaileak izan daitezkeenak, gizartearekiko ardura bat ere badute, beraz, zerga hobariak eta zerga gainkargak uztartu behar direla uste dugu.

Diru laguntzak ere erabili beharko ditugu baina diru laguntza horiek alokairu prezioak finkatzeko baliagarriak izan behar dira, beraz, Udala Alokairu Indize Gidaria sortzea proposatzen dugu eta aldi berean etxebizitzak merkaturatzeko diru laguntzak ezarri. Baina maizterrak ere babesa behar du, horregatik proposatzen dugu Alokairurako Laguntza Bulegoa sortzea eta horrekin batera alokatzaile eta maizterren arteko bitartekaritza zerbitzua jartzea.

Jakin badakigu proposatzen duguna ez dela behin betiko konponbidea, konponbidearen pausu bat besterik ez, baina dugun premiari erantzunez ezarri daitezkeen neurriak direlakoan gaude.

Beraz osoko bilkura honi akordiorako honako puntu hauek proposatzen

Según un estudio realizado hace unos años, en Getxo hay más de novecientas viviendas que se podrían sacar al mercado. Queremos proponer un plan completo que movilice dichas viviendas vacías en el que se compaginen diversas medidas.

Creemos que se le debe dar seguridad al alquiler, puesto que esa es su mayor preocupación: es necesario garantizar seguridad económica, jurídica y técnica; por ello, proponemos crear un nuevo servicio en el que se traten dichos ámbitos.

Por otro lado, las personas propietarias de las viviendas vacías y que podrían ser arrendadores también tienen una responsabilidad con respecto a la sociedad; es por ello que en nuestra opinión se deberían unificar las bonificaciones tributarias y los recargos tributarios.

También tendremos que disponer de subvenciones, pero dichas ayudas deberán servir para fijar los precios del alquiler; por tanto, proponemos crear un índice municipal de referencia de precios de alquiler y establecer al mismo tiempo subvenciones para la comercialización de las viviendas. No obstante, las personas arrendatarias también necesitan protección; es por ello que proponemos la creación de una Oficina de Ayuda al Alquiler donde ofrecer servicio de intermediación entre las personas arrendadoras y arrendatarias.

Somos conscientes de que nuestras propuestas no suponen una solución definitiva y que son tan solo un avance, pero creemos que se tratan de medidas que pueden establecerse para responder a las necesidades actuales.

Por todo ello, proponemos los siguientes puntos de acuerdo a este Pleno:

dizkiogu.

1. 6 hilabeteko epean udalak alokatzaileentzako laguntza zerbitzua ezarriko du zeinak segurtasun juridiko, ekonomiko eta teknikoan lagunduko diona eta alokatzaileen egoera erraztuko duena.
  2. Etxe hutsak alokairuan jartzeko udal zerga sistemak baimentzen dituen hobari guztiak aztertu eta ezarriko dira 6 hilabeteko epean.
  3. 2024. HOZean udalak maiatzaren 18ko 4/2016 arau foralak bere 10.artikuluaren 9.puntuan aurreikusten den %50eko gainkarga ezarriko da aipatu artikuluak ezartzen duen baldintzetan.
  4. Ekainaren 18ko 3/2015 Etxebizitza Legeak bere 57.artikuluaren aurreikusten duen etxe hutsei kanona ezarriko da 6 hilabeteko epean.
  5. Ekainaren 18ko 3/2015 Etxebizitza Legeak ematen dituen aukera guztiak arakatu eta ezarriko dira.
  6. Etxebizitzak konpontzeko eta alokairuan jartzeko diru laguntzak ezarriko dira, 6 hilabeteko epean.
  7. Etxebizitza handiak zatitzeko eta, gutxienez bat, alokairuan jartzeko diru laguntzak ezarriko dira 6 hilabeteko epean.
  8. Higiezinaren ondasuneko agentziak, etxe eraikitzaileak, maizterren elkarteak eta gazte erakundeak entzun eta gero Udalak Alokairu Udal Indize gidaria ezarriko du zeinak diru laguntza guztiak baldintzatuko dituen.
1. El Ayuntamiento establecerá un servicio de ayuda para las personas arrendadoras en un plazo de seis meses, a fin de ayudarles en los ámbitos que incluyen la seguridad jurídica, económica y técnica, así como facilitarles la situación a las y los arrendadores.
  2. En un plazo de seis meses, se analizarán y establecerán todas las bonificaciones permitidas por el sistema tributario municipal para poner en alquiler las viviendas deshabitadas.
  3. 2024. El Ayuntamiento exigirá el recargo del 50 % en el I Impuesto sobre Bienes Inmuebles, de conformidad con lo establecido en el apartado 9 del artículo 10 de la Norma Foral 4/2016.
  4. En un plazo de seis meses, se establecerá el canon de vivienda deshabitada establecido en el artículo 57 de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda.
  5. Se analizarán y establecerán todas las medidas recogidas en la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda.
  6. En un plazo de seis meses, se establecerán todas las subvenciones dirigidas a la reparación y alquiler de viviendas.
  7. En un plazo de seis meses, se establecerán todas las subvenciones dirigidas a la reparación y alquiler de viviendas.
  8. El Ayuntamiento, tras escuchar a las inmobiliarias, las constructoras, las asociaciones de personas arrendatarias y los organismos juveniles, establecerá un índice de referencia de precios

9. Alokairuaren Bulegoa sortuko da maizterrak laguntzeko eta aholkatzeko, baita alokatzaileak laguntzeko eta aldi bien arteko bitartekaritza lana egiteko ere.
10. Eraikitzaile, higiezin agentzia, maizterren elkarte, gazte eragile eta beste eragile sozialekin botera Etxebizitza Udal Kontseilua eratuko da, alderdi politiko guztien parte hartzearekin.

de alquiler, el cual condicionará todas las subvenciones.

9. Se creará la Oficina de Alquiler para ayudar y asesorar a las personas arrendatarias, así como para ayudar a las arrendadoras y ofrecer intermediación entre ambas.
10. Junto con las constructoras, las asociaciones de personas arrendatarias, los agentes juveniles y otros agentes sociales, se creará el Consejo Municipal de Vivienda, en el que participarán todos los partidos políticos.

### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ibon Rodríguez  
Xabier Benito  
Juanma González  
Gonzalo Zorrilla-Lequerica  
Alvaro González

### BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 6 (EH Bildu)  
EZ/NO: 18 (EAJ/PNV, PP, PSE-EE)  
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 1 (E.Podemos)

### 182.- EH BILDU UDAL-TALDEAREN MOZIOA, ITSASADAR AZPIKO TUNELAREN PROIEKTUA GELDITZEARI BURUZKOA.

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da.

2020. urteko irailean Bizkaiko Foru Aldundiak Artazako biribilgunea eta Ballontikoa itsasadar-azpiko tunel batekin lotzeko proiektua diseinatzeko lizitazioa egin zuen, 10'5 milioi euroko kopuruarekin. Momentu honetan proiektua erredakzio fasean dogo, ingurumen txostena aurkeztu berri da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri du hurrengo urteko udazkenean hasiko direla

### 182.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU SOBRE LA PARALIZACIÓN DEL PROYECTO DEL TÚNEL BAJO LA RÍA.

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

En septiembre de 2020, la Diputación Foral de Bizkaia aprobó una licitación de 10,5 millones de euros para diseñar el proyecto que unirá la rotonda de Artaza y la de Ballonti mediante un túnel bajo la ría. En este momento, el proyecto está en fase de redacción; además, recientemente se ha presentado el informe medioambiental y la Diputación Foral de Bizkaia ha previsto que las obras comenzarán en otoño del año

lanak.

Foru Aldundiaren arabera, tunel honek aurre egingo diogu Arrontegiko zubian bizi diren trafikoko-arazoei eta Supersurraren 2. fasearen jarraipen modura hartzen dute. Proiektuak 400 milioi euroko aurrekontua izango du (gainkostuak kontuan hartu barik) eta autoen erabilerari erabateko lehentasuna emango dio. Proiektuak berak onartzen du Artaza inguruan trafikoa eta zarata handituko dela, ez du zehazten bizikletentzako loturarik izango duten, eta agerikoa da Artazako parkean (Leioa izan arren, Getxoko herritar ugari erabiltzen dutena) izango duen eragina, baita Artaza-Romoko Institutuko patioan ere.

Proiektuak ezinegona eta kezka sortu du Artazako biribilgunearen inguruan bizi diren auzokideengan (Antiguo Golf, Neguri ... ) eta baita Artaza-Romo Institutuan ere. Alegazioak aurkeztu dizkiote proiektuari, eta oso kezkatuta daude proiektuak euren etxebizitza inguruan sor ditzakeen arazoengatik: oinezkoentzat loturak nolakoak izango diren, parkea nola geldituko den, zarata handituko den, trafikoko-arazoak sortuko diren, espaloietan harresiak sortuko diren eta abar.

EH Bildutik ere kezka hori partekatzen dugu, eta, gure ustez, mugikortasunean bestelako lehentasunak izan behariko genituzke proiektu honen aurretik: garraio publikoa hobetu (metroaren maiztasunak handitu, aireportura edo Zamudioko parke teknologikora lotura berriak, metroaren ibilbidea lurperatu, bidegorri-sarea handitzen jarraitu ... ). Larrialdi klimatikoaren testuinguruan, oraindik eta zentzu gutxiago du proiektu honek,

que viene.

Según la Diputación Foral, dicho túnel solventará los problemas de tráfico que surgen en el puente de Rontegi y se considerarán como continuación de la segunda fase de la Supersur. El proyecto tendrá un presupuesto de 400 millones de euros (sin tener en cuenta el sobrecoste) y se dará prioridad absoluta al uso de los coches. En el mismo proyecto se reconoce que en los alrededores de Artaza se incrementará tanto el tráfico como el ruido y no se concreta si habrá alguna conexión para las bicicletas. Además, es evidente que tendrá repercusión en el parque de Artaza (el que utilizan muchísimos habitantes de Getxo a pesar de estar en Leioa), así como en el patio del instituto de Artaza-Romo.

El proyecto ha generado inquietud y preocupación entre los y las habitantes que residen en los alrededores de la rotonda de Artaza (Antiguo Golf, Neguri...) y del instituto Artaza-Romo. Han presentado alegaciones al proyecto y muestran una gran preocupación por los problemas que podría ocasionar el proyecto en las inmediaciones a sus viviendas: por cómo quedarán las conexiones para las personas viandantes, por cómo quedará el parque, por si incrementa el ruido, por si se generan problemas de tráfico, por si se crean muros en las aceras, etc.

En EH Bildu compartimos dicha incertidumbre y creemos que deberíamos tener otras prioridades antes de llevar a cabo dicho proyecto: mejorar el transporte público (ampliar las frecuencias del metro, crear nuevas conexiones al aeropuerto o al parque tecnológico de Zamudio, soterrar el recorrido del metro, continuar ampliando la red de bidegorris, etc.). En el contexto de la crisis climática el mencionado proyecto tiene aún menos sentido, puesto que

jarraitzen duelako auto pribatuen erabilera lehenesten, gure ingurua makro-azpiegiturez josten, eta hau guztia teorian 10 minutuko ibilbidea "aurrezteko" kotxez. Hainbat hiritan emisio gutxiko eremuak zehazten diren bitartean, auto pribatuaren erabilerari trabak jartzen zaizkion bitartean ... hemen Bizkaian alfombra gorria jarri nahi zaio kotxeari.

Eta, noski, proiektu hau guztia herritarren inolako parte-hartzerik gabe gauzatu da. Artaza inguruan bizi diren auzokideek ez dakite euren etxebizitzaren ingurua nola geratuko den, nola eragingo dien tunelak eta aurretiko obrak ...

Honegatik guztiagatik, honako mozio proposamena aurkeztzen diogu Getxoko udalbatzari:

- Getxoko Udalak eskaera egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiari itsasadar azpiko tunelaren proiektua geldiarazteko. Proiektu hau inguruko bizilagunekin eta gizarte eragileekin adostu ez delako, ingurumenari kalte handia sortuko diolako, eta, aldi berean, ibilgailu pribatuaren trafikoaren mugikortasuna handitzen duelako BFAren premisaren aurka egiten.

### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Olaia Bilbao  
Xabier Benito  
Carmen Díaz  
Eduardo Andrade  
Janire Ocio

### BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 7 (EH Bildu, E.Podemos)  
EZ/NO: 9 (EAJ/PNV)  
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 9 (PP, PSE-EE)

183.- EH BILDU UDAL-TALDEAREN

continúa priorizando el uso de los vehículos privados y llenando nuestro entorno de macroinfraestructuras, y todo ello por «ahorrar» un recorrido de diez minutos en coche. Mientras que en varios municipios se regulan las zonas de bajas emisiones y se obstaculiza el uso del vehículo privado, en Bizkaia queremos poner la alfombra roja al coche.

Por supuesto, dicho proyecto se ha desarrollado sin ningún tipo de participación ciudadana. Los vecinos y vecinas de los alrededores de Artaza desconocen el estado en el que quedarán las inmediaciones de su vivienda, cómo les afectará el túnel y las obras previas, etc.

Por todo ello, presentamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente propuesta de moción:

- El Ayuntamiento de Getxo solicita a la Diputación Foral de Bizkaia que detenga el proyecto del túnel bajo la ría. El mencionado proyecto no ha sido acordado ni con la ciudadanía ni con los agentes sociales, provocará grandes perjuicios al medioambiente y, además, incrementará la movilidad del tráfico de los vehículos privados, en contra de la premisa de la DFB.

183.- MOCIÓN DEL GRUPO



**MOZIOA, HAURREK ESKUBIDEA DUTE LEHEN HAURTZAROKO HEZKUNTZA ETA ZAINZA ESKURAGARRIAK ETA KALITATE ONEKOAK IZOTEKOARI BURUZKOA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera botada.

“Haurrek eskubidea dute lehen haurtzaroko hezkuntza eta zaintza eskuragarriak eta kalitate onekoak izoteko”. Horrela dogo jasota Eskubide Sozialen Europako printzipioetan.

Norabide horretan Haurreskolak Partzuergoaren helburu dira eta horrela jasotzen da NON?:

- a) Familiekin lankidetzan, haurren garapen integrala sustatzea adingabeen eskubidearekiko errespetuaren, ongizate psikofisikoaren eta afektibitate, zentzumen eta mugimen, ezagutza, harreman eta gizarte ahalmen guztien garapenaren ikuspegitik prestatu eta sozializatzearen bidez.
- b) Ezberdintasunak konpentsatuko dituen prebentzio-hezkuntza bat sustatzea eta, bereziki, gizarte edo pertsona mailan beharrik handienak dituztenei arreta eskaintzea, parekotasuna bilatuta.
- e) Hezkuntza-ekintzaren hasieratik Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak erraztea eta bultzatzea.
- d) Familiei hiru urtetik beherako haurrei eskaintako zaintza eta arretaren bidez laguntza-zerbitzua ematea, familia eta lana uztartzeko mekanismo gisa.

**MUNICIPAL EH BILDU SOBRE EL DERECHO DE LOS NIÑOS Y NIÑAS A RECIBIR UNA EDUCACIÓN Y UNOS CUIDADOS DE LA PRIMERA INFANCIA ASEQUIBLES Y DE BUENA CALIDAD**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

«Los niños y niñas tienen derecho a disfrutar de una educación y unos cuidados de la primera infancia asequibles y de buena calidad». Así está recogido en los principios de los derechos sociales de Europa.

En base a ello trabaja el Consorcio Haurreskolak, y así se recoge al establecer los siguientes objetivos:

- a) Promover, en colaboración con las familias, el desarrollo integral del niño o niña mediante su formación y socialización desde la perspectiva del respeto a los derechos del menor, su bienestar psicofísico y el desarrollo de todas sus potencialidades afectivas, senso-motoras, cognitivas, relacionales y sociales.
- b) Promover una educación preventiva y compensadora de desigualdades procurando, de forma especial, la atención de los más desfavorecidos social o personalmente, en busca de la equidad.
- c) Favorecer e impulsar desde el inicio de la acción educativa las condiciones adecuadas para garantizar el bilingüismo en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.
- d) Prestar un servicio asistencial a las familias mediante el cuidado y atención a los niños y niñas menores de tres años, como mecanismo para favorecer la conciliación entre la vida familiar y laboral.



e) Landa-eremuetako biztanleei hezkuntza eta laguntza izaerako zerbitzu baten eskuragarritasuna ahalbidetzea.

"Are gehiago, lehen haurtzaroko hezkuntza eta zaintza kalitate handiko zerbitzu publikoa, unibertsala, eta doakoa izan dadin nahi da." Eta 2023-2024 ikasturtetik aurrera doakotasuna ezarri da Haurreskolak Partzuergoan. Horrela zehazten da 5/03-2023 erabakian, martxoaren 22koan, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearena, zeinaren bidez onartzen baitira Haurreskolak Partzuergoko plazen eskaintza, funtzionamendua eta haurren izen-emate arauak 2023-24 ikasturterako.

Aurreko guztia kontuan izanik, LAB Sindikatuak Getxo herriko udalbatzari mozio honen bidez ondorengoa azaltzen dio:

Getxoko udalerriko Haurreskolak Partzuergo Publikoko Haurreskolan ez dagoela 2023-2024 ikasturtean familia gehiagok izena emateko aukerarik, plaza librerik ez dagoelako.

Honengatik, LAB Sindikatuak honakoa eskatzen dio:

Haurreskolak Partzuergo Publikoko eskaintza unibertsal, publiko, doako eta euskaldun nahikoa egon dadin, Getxoko udalerrian Haur hezkuntzako lehenengo zikloko (0-2/3) haurrentzako nahikoa plaza bermatu daitezen Haurreskolak Partzuergoarekin elkarlanean, Haurreskolaren handitzea edota Haurreskola berria/k zabaltzea eskatzen du dagoen eskaerari erantzun ahal izateko.

## PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

e) Posibilitar el acceso a un servicio de carácter educativo y asistencial de calidad a la población de las zonas rurales.

«Más aún, aspira a que la educación y el cuidado en la primera infancia sea un servicio público de alta calidad, universal y gratuito». Así las cosas, el servicio del Consorcio Haurreskolak será gratuito a partir del curso 2023-2024. Así se establece en el Acuerdo 5/03-2023 de 22 de marzo, del Comité Directivo del Consorcio Haurreskolak, por el que se aprueba la oferta de plazas, funcionamiento y normativa y criterios de admisión de niños y niñas para el curso 2023-2024.

Teniendo en cuenta todo lo anteriormente expuesto, el sindicato LAB indica cuanto sigue al Pleno del Ayuntamiento de Getxo mediante la presente moción:

En las guarderías del municipio de Getxo pertenecientes al Consorcio Haurreskolak no es posible que se inscriban más familias puesto que no quedan plazas libres.

Por consiguiente, el sindicato LAB solicita lo siguiente:

La oferta del Consorcio Público Haurreskolak debe ser universal, pública, gratuita, euskaldun y suficiente; por ello, en colaboración con el Consorcio Haurreskolak, en el municipio de Getxo se garantizarán plazas suficientes para los niños y niñas del primer ciclo de educación infantil (0-2/3), aunque para dar respuesta a la actual demanda sea necesario ampliar la guardería o abrir nuevas.

Oihane Zelaia  
Xabier Benito  
Mihaela Jilavu  
Eduardo Andrade  
Ignacio Uriarte

### **BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 7 (E Bildu, E.Podemos)  
EZ/NO: 12 (EAJ/PNV, PSE-EE)  
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 6 (PP)

### **184.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL- TALDEAREN MOZIOA, GETXOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN INFORMAZIORAKO SARBIDEA HOBETZEARI BURUZKOA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da.

Urtero bezala, data hauetan Getxoko ehunka familia bete-betean daude sartuta ikastetxeei buruzko informazioa bilatzeko lanetan, seme-alabak hurrengo ikasturterako matrikulatze aldera.

Oso erabaki garrantzitsua izan arren, familiek oro har oso informazio gutxi izaten dute erabakia hartzeko unean, eta ezertxo ere ez udalak emana. Esate baterako, hurbileko udal batzuek liburuxka bat bidaltzen dute, zeinaren bidez laburki azaltzen baita udalerriko hezkuntza-eskaintza. Mozio honek barne hartzen dituen bi proposamenak gauzatzen badira, informaziorik ez izateko arazoa konponduko litzateke (eskuragarri dauden bekak eta dirulaguntzei buruzko informazioa ere bidaltzea proposatzen dugu); halaber, Getxoko ikastetxe publikoen kalitatea nabarmenduko litzateke. Hezkuntza inklusiboa, euskalduna, laikoa eta doakoa nahi dugu, aniztasunarekin konprometituta dagoena eta ekitatea nahiz gizarte-kohesioa oinarritzat hartzen dituen.

### **184.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS SOBRE MEJORAR EL ACCESO A LA INFORMACIÓN DE LAS ESCUELAS PÚBLICAS DE GETXO.**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Como cada año, cientos de familias de Getxo están inmersas en estas fechas en la tarea de buscar información sobre los centros escolares en los que matricular a sus hijos e hijas para el próximo curso.

A pesar de la importancia del hecho, las familias afrontan esta decisión con escasa información en general, y ninguna por parte de su ayuntamiento. Otros ayuntamientos cercanos, por ejemplo, envían un folleto que da a conocer brevemente la oferta educativa del municipio. Mediante la puesta en marcha de las dos propuestas que contempla esta moción se resolvería esta falta de información, también de las becas y ayudas disponibles, al tiempo que se pone en valor el nivel de calidad de la escuela pública vasca en Getxo. Una educación inclusiva, euskaldun, laica y gratuita, comprometida con la diversidad, basada en la equidad y la cohesión social.

Informazio-faltaren ondorioz, ikastetxe jakin bat aukeratzean batzuetan familiek haien inguru sozialak edo familiak gomendatutakoaren arabera egiten dute aukeraketa, udalerriko eskolen egoera bertatik bertara ezagutu barik. Halaber, informaziorik ez izateak hurbileko udalerrietara joatea eragiten du, eta bitartean Getxoko ikastetxe batzuetan plaza batzuk bete barik geratzen dira. Ildo beretik, gogoratu behar dugu informazio gehiago izatea lagungarria dela bereizketari aurre egiteko, zeina desberdintasunak ezabatzeko eragozpena baita. Horrenbestez, logikoena izango litzateke udal honek udalerriko eskaintzaren berri ematea.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udaleko Osoko Bilkura honi honako hau aurkeztu nahi diogu:

#### ERABAKI-PROPOSAMENA:

1. Getxoko Udala konprometitzen da urtero liburuxka bat egitera. Liburuxka hori etxebizitza guztietara bidaliko du eta Getxoko ikastetxe publikoen eskaintza azalduko da bertan, bakoitzaren instalazioak, proiektua, hezkuntza-ibilbidea, zerbitzuak eta bisitetarako kontaktua adierazita.

2. Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du herritarren arretarako bulegoetan urtero, eskola-matrikula egiteko garaian eta garaia hasi aurretik, Getxoko ikastetxe publikoen eskaintzari buruzko informazioa ematera familiei; halaber, informazioa emango zaie laguntzei eta udal zein autonomia-erkidegoko bekei buruz, eta azalduko zaizkie matrikula-prozesua betetzeko jarraibideak.

#### PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ante la falta de información, elegir un centro escolar supone que, en ocasiones, las familias se guíen por recomendación de su entorno social/familiar, sin poder conocer de primera mano la realidad escolar del municipio. Asimismo, fruto de la falta de información se favorece la movilidad a otros municipios cercanos cuando en Getxo hay centros que no cubren sus plazas. Y no nos podemos olvidar, que más información ayuda a combatir la segregación, que es un lastre para acabar con las desigualdades. Por tanto, sería lógico que este Ayuntamiento hiciera difusión de la oferta en su municipio.

Por todo ello, elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

#### PROPUESTA DE ACUERDO:

1. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a elaborar cada año un folleto que se distribuirá a cada domicilio con la oferta de centros escolares públicos de Getxo, con descripción de sus instalaciones, proyecto e itinerario educativo, servicios y contacto para visitas.

2. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a ofrecer anualmente en las OACs, previo y durante el período de matriculaciones escolares, información a las familias sobre la oferta de centros educativos públicos de Getxo, sobre las ayudas y becas tanto municipales como autonómicas y se de orientación para la cumplimentación del proceso de matriculación.

Xabier Benito  
Mihaela Jilavu  
Mikel Bildosola  
Gonzalo Zorrilla-Lequerica  
Mikel Erkoreka

### IRUZKINAK/COMENTARIOS

Onartu gabeko PP taldearen zuzenketa transakzionala./ Enmienda transaccional del PP no aceptada

### BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 1 (E.Podemos)  
EZ/NO: 12 (EAJ/PNV, PSE-EE)  
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 12 (PP, EH Bildu)

<u>GALDE-ESKEAK</u>	<u>RUEGOS Y PREGUNTAS</u>
---------------------	---------------------------

Ez dago.

No se formulan.

<u>HERRITARREN GALDERAK</u>	<u>PREGUNTAS DE LA CIUDADANÍA</u>
-----------------------------	-----------------------------------

José Ignacio Sáezek, Antiguoko Golfeko bizilagunen komunitatearen ordezkariak, itsasadarreko ibai-azpiko obra dihardu, eta auzotarren kezka azaldu ditu. Bere iritziz, udalak ez du zeregin aktiborik izan kaltetutako bizilagunen defentsan.

José Ignacio Sáez, representante de la comunidad de vecinos del Antiguo Golf que trata de la obra del subfluvial de la ría que le afecta de lleno y plantea las preocupaciones de los vecinos, manifestando que en su opinión el ayuntamiento no ha tenido un papel activo en defensa de los vecinos y vecinas afectadas.

Alkateak eskerrak eman ditu mintzaldiagatik, eta gogorarazi dio bilera bat kudeatu dela Bizkaiko Foru Aldundiarekin, planteatutako gaiak argitzeko.

La Alcaldesa agradece la intervención y le recuerda que se ha gestionado una reunión con la Diputación Foral de Bizkaia donde se podrán aclarar las cuestiones planteadas.

Osoko bilkura amaitzeko, alkateak zorionak eman dizkie udalbatzako kide guztiei.

Finaliza el pleno con la felicitación de la Alcaldesa a todos los corporativos y corporativas.

Eta beste aztergaririk ez zegoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman zuen egun

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Alcaldesa levantó la sesión siendo las 12

horretako 12:17an.

Saio honen laburpena transkribatu da, eta bideo-akta sistema baten bidez audobisual euskarrian egindako grabazioaren osotasuna bermatzen duen ondorengo aztarna elektroknoa SHA512 - c355177f0a15510b7f04057105b11b376df62b181464aed932a1722b5f10b4ef2612010a65d1b2ff713295b18f7196f49d5bb2d7c7f2492896448d9ff797d04c, nik Idazkari Nagusiak eta Alkateak nirekin sinatuz, horren guztiaren fede ematen dut.

*Ikus-entzunezko artxiboa Getxoko Udalaren bideotekara joz kontsulta daiteke, esteka honetan:*

<https://getxo.seneca.tv:443/s/jqXQFKSUYyD2RzuHky2hiEofGCxcvIKUrhNiqze9JXDZpQbO.wmv>

horas y 17 minutos de este día.

De esta sesión, cuyo extracto se ha transcrito, y de la grabación en soporte audiovisual realizada mediante un sistema de video-akta, con la siguiente huella electrónica que garantiza la integridad de la grabación:

SHA512 - c355177f0a15510b7f04057105b11b376df62b181464aed932a1722b5f10b4ef2612010a65d1b2ff713295b18f7196f49d5bb2d7c7f2492896448d9ff797d04c, como Secretario General y firmando la Alcaldesa en unión mía, doy fe.

*El archivo audiovisual puede consultarse accediendo a la videoteca del ayuntamiento de Getxo en el siguiente enlace:*